



# HITZA txapelketako finalak jokatuko dira Beotibarren

AMEZKETA ▶

Gazte Taldeak  
antolatutako  
txapelketa  
abian da

Inoizko jende gehien  
bilduko da; lehen  
aldiz, emakumeak ▶ 6

**BIHAR ▶** Hemezortzi finalista ariko  
dira 10:00etan hasita; eskualdeko  
jokalaria dira horietako bederatz

**MAILA ▶** Kadete mailako pilotariak  
bakarkako lana egin beharko dute;  
besteek bikoteka jokatuko dute ▶ 2

OLAIA ESKITXABEL

## Sanjoanetako ekitaldiak erruz ari dira jendea biltzen bailarako herrietan

**TOLOSALDEA ▶** Eskualdeko herri askotan amaitu dira jada,  
baina Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan Sanjoanak ari dira  
ospatzen oraindik. Eguraldia lagun, erruz ari da jendea biltzen  
ekitaldietan. Tolosan, esaterako, Koadrilen Eguna izango da gaur.  
Argazkian, atzo Abaltzisketan egin zituzten haur jolasak. ▶ 3-5

LEITZA ▶

## Gorritarango eguna egingo dute bihar

Kaxetan egun beteko festa izango da,  
ekaineko azken igandea dela-eta ▶ 7



**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

### Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

**MATRIKULA IREKIA:**  
UZTAILAREN 1etik 7ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56  
idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



PILOTA ▶

# Bihar jokatuko dira HITZA Txapelketako finalak Beotibarren

Hemezortzi finalisten artean, bederatzi eskualdekoak dira; partidu «zailak eta gogorrek» espero dituzte pilotariek

JOXEMI SAIZAR

Bihar 10:00etatik aurrera jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan Aurrera-Saiaz elkarteak antolatutako HITZA Pilota Txapelketako finalak.

Apirilaren 21ean hasi zen txapelketa. Guztira 152 parte-hartzaile izan dira, gehienbat eskualdekoak eta baita beste eskualde eta lurraldekoak ere. Duela bi aste jokatu ziren finalerdiak eta erabaki ziren biharko finalistak.

Bost mailetan guztira hemezortzi pilotari ariko dira —kade mailan bakarka ariko dira— eta horien erdiak, bederatzi, eskualdekoak dira. Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak. Meritu berezia dauka adibidez, bi adunar iristea final batera. «Aduna hain herri txikia izanda, Iraola lehengusuak hor egotea garrantzitsua da», aipatu du bere entrenatzaile Luis Mari Sorrainek.

Finalen aurrean, eskualdeko finalista horietako batzuen irizkiak jaso ditu HITZAK. Etorkizuneko mailan, Ugaitz Renobales alegiarra iritsi da finalera Aliotz Txertudi busturiarrekin batera. Aurrean izango dituzten Apezetxea-Arrastoa nafarrak lehendik ere aurkari izan ditu, «batzuetan irabaziz eta besteetan galduz», dituzte eta «partidu zaila» izango dela dio Renobalesek. Txapelketari buruz hitz egin ez, alegiarra «uste baino hobeto» aritu dela dio, ez zuelako espero finalera iristea. Hasieran Etxegarai zuen bikotea, baina eskuetatik gaizki ibili zenez, Txertudirekin bukatu du txapelketa. «Egun hauetan Urnietan eta Usturbi-



Etorkizuneko mailako finalerdi bat Beotibarren.

len ere finalak ditut. Bestalde Añorgako txapelketan ere ari naiz jokatzeko. Eskuetatik ondo nago, baina kontuz ibili behar izaten dugu: gehiegi ez jokatu, ahal bada asteburu batean bi partidu ez, izotza eman...», adierazi du alegiarrek.

Infantilen artean lau finalistak inguruak izango dira. Iraitz Olaetxea lizartzarra «anaiarekin eta Ramon Egiguren entrenatzailearekin» ari da egun hauetan finala prestatzen. Aurkariak —Iraola lehengusu adunarrak— «onak» direla dio. «Duela gutxi jokatu genuen eta 18-17 galdutako», esan du Olaetxeak. «Aurreko asteburuan Tolosaldeko I. Topaketako finalean zizurkildarre 16-6 irabazi genien eta oraingo beste txapelketarik ez dut», esan du lizartzarrek.

Bere bikotea Haritz Sagastibelza hitz egin ez, alegiarra «uste baino hobeto» aritu dela dio, ez zuelako espero finalera iristea. Hasieran Etxegarai zuen bikotea, baina eskuetatik gaizki ibili zenez, Txertudirekin bukatu du txapelketa. «Egun hauetan Urnietan eta Usturbi-

doren eta zerbait ezagutzen ditut», dio leitzarrek. Udan atsedena izango du, oraingo beste txapelketarik ez duelako.

Iker Iraola adunarrak ez du entrenamendu berezirik egin. Abaltzisketako jaietan izan da berri da jokatzeko eta irabazi egin du partidua. Beste bikoteak batekin irabazi du duela gutxi Gipuzkoako Txapelketa Olaetxea lizartzarra eta beste baten aurka. Urnietako txapelketan ere ondo aritu da. «Hemendik aurrera Alkizako txapelketan jokatu dugu, baina kadete mailan, handiagoekin», adierazi dio HITZARI.

Bere lehengusu Unai Iraola ere Alkizako txapelketan ari da, baina infantil mailan. «Aste honetan bi aldiz entrenatu dut, astero bezala, Sorrainek eta asteazkenean partidua izan nuen Errenterian, ordezko bezala eta galdu egin genuen», esan du. Finala irabazte «zail samarra» ikusten du adunarrak.

Biharko pilota festarako deia luzatzea besterik ez da falta. Ingaratzen diren zaleek zerukusia izango dute.

## FINALISTAK ▶

## Benjaminak.



Haritz Zelaia-Eneko Labaka.



Iñaki Irazusta-Julen Benadre.

## Alebinak.



Etxaniz-Aizpuru.



B. Urretabizkaia-Jon Jaunarena.

## Infantilak.



Iraitz Olaetxea-H. Sagastibelza.



Iker Iraola-Unai Iraola.

## Kadeteak.



Arkaitz Goikoetxea.



Odei Iturriotz.

## Etorkizunekoak.



Ugaitz Renobales-Aliotz Txertudi



Jon Apezetxea-Xabier Arrastoa.

## iragarki laburrak ▶

**Lorezainak**, garbitzaileak, beharginak, zerbitzu anitzak, sukaldari laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza eta udaletarako. Hurrengo inkompozizioak: Donostia, Bergara, Hernani. Doako informazioa. 943 650193.  
**Igeltseroak**, iturginak, arotzak, beharginak. Plaza finkoak udal eta Eusko Jaurilaritza. Doako

informazioa. 943 650193.  
**Ezinduak**. Erreserbatutako plaza finkoak. Lortu zure lanpostua udal eta Eusko Jaurilaritza; garbitzaileak, gidariak, zaintzaileak, zerbitzariak. Doako informazioa. 943 650193.  
**Ezinduak**. Lanpostu finkoak erresistentzia, ospital, ikastetxe eta egoitza publikoetan. Doako informazioa. 943 650193.

**Harreragile-telefonista**. Plaza libreak Eusko Jaurilaritza eta udaletan. Inkompozizioak laister. Doako informazioa. 943 650193.  
**Yate untzien gidaria**. Lortu titulua eta gozatu itsasoaz. Doako informazioa. 943 650193.  
**Zaintzaileak**. Haurrak eta agureak zaintzeko plaza finkoak udal eta foru aldundietan. Doako informazioa. 943

650193.  
**Liburutegiko zaintzaileak**, udal arribategi eta unibertsitateetan lan egiteko. Berehalako inkompozizioak. Doako informazioa. 943 650193.  
**Banketxe eta kutxak**. Laguntzaileak behar dituzte. Ezinbestekoa: BBB. Inkompozizioak laister. Doako informazioa. 943 650193.  
**Gizarte langilea**. Laster

inkorporazioak udaletan, Foru Aldundian. Doako informazioa. 943 650193.  
**Osasunbidea**. Administrazioak, erizain laguntzaileak eta OLRako 189 plaza. Doako informazioa. 943 650193.  
**Laborategiko teknikoak** eta laguntzaileak, ingurugirokoa. Plaza libreak erakunde ofizialeetan. Doako informazioa. 943 650193.

TOLOSA ▶ ZEZENKETA

# Zezenketa izango da bihar arratsaldean

18:00etatik aurrera ariko dira Uceda Leal, Castilla eta Vega

## ERREDAKZIOA

Aparteko zezenketa izango da bihar Tolosako zezen-plazan. Arratsaldeko seietatik aurrera Antonio Bañuelos etxeko sei zezen aurkeztuko dituzte Uceda Leal, Sebastian Castilla eta Salvador Vega toreatzaileen-tzat; toreatzaile bakoitza bere banderilari eta pikadoreekin ariko dela adierazi dute zezenketaren antolatzaileek: Toros Tolosako Zezenak elkarteak.

Jose Ignacio Uceda Leal Madrilen jaio zen 1977an. Zaldiekin, 1995eko maiatzaren 1ean egin zuen debuta Murtziako (Espainia) Lorca plazan. Handik aurrera lan bikaina egin zuen Uceda Lealek, eta urtebetera alternatiba hartu zuen Madrileko Plazan: 1996ko urriaren 3an, hain zuzen ere. Harrezkero, Las Ventas-en gustukoak duten toreatzaileetako bat da, eta askotariko ganadu-etxeekin garaipen handiak lortu ditu. Joan den maiatzaren 2an berak bakarrik egin zien aurre sei zezenei Madrilen, eta eguraldiak batere lagundu ez zion arren, bizkar gainean atera zuten plazatik. Uceda Lealek German Gonzalez eta Francisco Tapia pikadoreak eta Juan de los Reyes, Francisco Osuna eta Julio Lopez banderilariak izango ditu ondoan.

Sebastian Castilla Beziarsen (Frantzia) jaio zen 1983an. 2000. urtean Donostiako Illunbe plazan egin zuten I. Nobileroen Nazioarteko Topaketan ezusteko handia eman zuen, eta urte bereko abuztuaren 12an hartu zuen alternatiba jaioterrian. Espainian ez da gozatu iritsi, baina Frantzian garaipen handiak lortutakoa da: Beziarsen, Nimesen, Arles-en... Kolonbian arrakasta handia du baita ere. Jose Doblado eta Jose Manuel Moreno pikadoreak eta Manuel Peña, David Servonnat eta Pablo Delgado banderilariak lagunduko dute.

Salvador Vega ere Illunbeko topaketa horretan egin zen ezagun. 1984an Malagan (Espainia) jaioa, *Joselito*-k 2003an Nimesen eman zion alternatiba arrakastatsua Madrilen berretsi zuen urte bereko urriaren 4an. Santanderreko (Espainia) Ferian eta Bilboko Zezenketetan iaz lortutako garaipenak dira, agian, berezikiak bere ibilbidetik. Zaragozako Uda-

berriko Ferian lortu zuen saririk onena, hiru belarri ebakita. Harrapatu egin zuen zezenak, ordea, eta San Isidroren kanpo utzi zuen. Domingo eta Jesus Garcia pikadoreekin eta Juan Jose Trujillo, Raul Nuñez eta Francisco Javier Araujo banderilariekin ariko da Vega.

Antonio Bañuelosen ganadu-etxeari «hotzeko zezenak» deitzen diote, orubea garaiera

altuan duelako Burgosen. Domecq-en dute jatorria, Torrealta eta Torrestrella bidetik.

Zezenketarako txartelak salgai dira Triangulo kafetegian, Asteasuarra eta 66 tabernetan eta Orue erretegian. Bihar zezen-plazan bakarrik salduko dituzte 10:00etatik aurrera. 12 eurotik 400 eurora balio dezakete, gerizpearen edo eguzkia-ren eta lekuaren arabera.



luz, Tolosako zezen-plazan izan zen zezenketako irudi bat. JOXEMI SAIZAR

# Tolosa Hiri Komertziala

**IGARONDO**  
Asociación de Comerciantes de Tolosa  
Tolosa-Municipal-Euzkaria

**Tolosa  
Hiri  
Komertziala**

ZESTA-PUNTA ▶

### XIII. San Joan Txapelketaren finalak gaur, Beotibarren

Jaialdia amaitutakoan denboraldi amaierako bazkaria egingo dute Zuloaga Txiki jatetxean

I. ETXEBESTE

XIII. San Joan Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur Beotibar pilotalekuan. Izen bereko zesta-punta elkarteak programa berezia antolatu du biharko; 09:30ean hasiko da jaialdia.

Ordu horretan kinielak egiteko aukera izango dute bertara joaten direnek. 11:00etan alebin mailako finalak jokatu dituzte, bina-ka: Joseba Esnaolak eta Gorka Sanchezek Beñat Lopezen eta Jagoba Narbarteren kontra jardungo dute. Ordu erdi geroago infantil mailako finala izango da; buruz buru ariko dira Arkaitz Izagirre eta Joseba Zuloaga, eta 12:30ean erakustaldiko partida eskainiko dute Artetxek eta Rezolak eta Trabazosek eta Errendosorok, elkarren aurka.

Jaialdi polita izango da, hortaz, Beotibarren. Bazkalardua arte iraungo du zesta-punta festak, behin jaialdia amaituta Beotibar Zesta Punta elkarte pilotariak, entrenatzaileak eta gurusoak Zuloaga Txiki jatetxean elkartuko direlako bazkaritara.

Aurtengo denboraldiari amaiera emango diote zesta-puntako jokalariek gisa horretara. Uda ostean hasiko dute denboraldi berria.

TOLOSA ▶ KOADRILA EGUNA

## Koadrilen Eguna gaur sanjoanetako azken txanpari ekin aurretik

Tolosa Kup txapelketako finala jokatu dute goizean; poteo herrikoia, bazkaria eta umorea izango dira nagusi gaua arte

IRATXE ETXEBESTE

Tolosar askok gaurko egunerako gordetzen dituzte indarrak. Bezperan kafea hartzeko intenzioarekin jaitsi, eta zintzo-zintzo oheratzen dira goiz, hurrengo eguna luzea izaten delako. Bakarren batzua ia segidan egiten dute bezperatik hasi eta egun osoa. Baina tira... ajearekin edo biharamunik gabe, gutxi dira Koadrilen Egunari muzin egiten diotenak. Eta gaur ere, beste horrenbeste.

Goizetik hasiko dira Tolosako koadrilak batera eta bestera. Urte osoan egiten aritu diren Tolosa Kup, areto futbol txapelketako finala izango dute lehenik, Berazubín. Santos hartegia eta Kupelzaleak taldeak elkarren aurka ariko dira 11:00etatik aurrera, eta haien lagunak bakarrik ez, Tolosako gainerako koadrilak ere bilduko dira bertan egunari hasiera emateko.

Berez eguerdian hasiko dute Koadrilen Eguna. Eguerdian Berazubín bilduko dira denak, bakoitza bere blusa edo kamisetarekin, eta guztiek Koadrilen Eguneko zapi urdina lepotik zintzilak dutela. Jokoak, txiste, irrinti eta bertso lehiaketa, kalejira, dantzaldia... ekitaldi asko dituzte prestatuta Koadri-



Koadrilen Eguneko bazkaria izango da gaur Plaza Berrian. I. ETXEBESTE

len Eguneko antolatzaileek lehen orduetarako. Herriko dultzaineroek eta trikitilariak ere bat egin nahi izan dute egun berezi horrekin, eta txarangen laguntzarekin herria alaitzen jardungo dute egun osoan.

14:30erako koadrilen herri bazkaria dago, bestalde, iragarrita. Plaza Berrian bilduko dira, ohiko legez, eta bertan parte hartu nahi izatera txartelak eskuratu behar dituzte koadrilek alde aurretik. Bazkalostean erromeria egingo dute jai giroan, eta *Xanpetiki-dantza* eta *Larrain-dantza* ere izango da, hala nahi dutenentzat, segidan. Plaza Berrikoak amaituta,

Mulambo perkusio taldea kale ariko da 19:00etatik aurrera, eta ordu berean Sargardo Txapelketa egingo dute Berdura plazan. San Joan saria emango diete antolatzaileek, Batasuna elkarteok, sagardo onena ekartzen duenari. Bertara biltzen direnek sagardoa dastatzeko aukera izango dute, bestalde.

Eta egunari amaiera emateko zer hoberik, musika baino. Gauerditik aurrera O Jarbanzo Negro eta La Kinky Beat taldeen kontzertua izango da Plaza Berrian. Egun luzea eta gero, nekeak artean garaitu ez duenarentzat, aproposa.

TXIRRINDULARITZA ▶

### David Perez izan da Jose Maria Anzaren irabazlea

Telco-Jar taldeko Iñigo Aseginolaza izan zen helmugara lehenengo heldu zen tolosarra

I. ETXEBESTE

Tolosako Udalak eta Oriako Txirrindulari Eskolak urtero antolatzen duten San Joan eguneko txirrindulari proba David Perez, Alfus-Tedes taldeko ziklistak irabazi zuen herenegun, 3:08:41 denborarekin helmugara iristen lehena izan zelako. Haren atzetik sartu ziren, denbora berean, Telco-Jar taldeko Gustavo Toledo—berak irabazi zuen mendiko saria— eta Serbitzu Kiroli taldeko Xabat Otxotorena. Laugarren eta bosgarren Paulo Vargas (Graficas Ona) eta Eugenio Pineda (Caja Rural) izan ziren, hurrenez hurren, 03:08:47 eta 03:08:59 denborekin.

XXVII. Jose Maria Anzaren oroimenezko proban elite, afizionatu eta 23 urte azpikoek hartu zuten parte. Herriko lehen txirrindulariari saria Telco-Jar taldeko Iñigo Aseginolazari eman zioten antolatzaileek, eta taldeka honakoak izan ziren sailkatu ziren lehenak: irabazlea, Caja Rural (09:26:57), 18 punturekin, eta segidan, Alfus-Tedes (09:27:38), 31 punturekin; Serbitzu Kiroli (09:28:07), 34 punturekin; Graficas Ona (09:30:43), 48 punturekin eta Cafes Baque (09:31:40), 54 punturekin.

**ARAMBURU**  
Salgai (Irura), Duplex-a salgai Etzezarreta kalean.  
**Alokatzeko (Salou).** Bi logela dituen apartamentua, 6 laguntza, Igerilekuarekin, Hondartza gertu.  
**Alokatzeko La Pineda (Salou).** Apartamentua alokatzen da, Hondartza gertu.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Denda bezala egokitua dagoen lokala alokatzen da Laskorain kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa).** 145m<sup>2</sup>-ko bulegoa Larramendi kalean.  
**Alokatzeko (Irura).** Garajeak Mikel Goi Aingeru enparantzan  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**psikomotrizitatea**  
**psikologia**  
• Psikomotrizitate atzerapena  
• Portaeraren aldaketa  
• Blokeo emozionala  
• Arreta zailtasunak  
• Hiperaktibitatea eta inhibizioa  
P. Gorosabel, 40-1B  
TOLOSA • 943 69 82 65  
mug.: 626 176 522

**KUDELA**  
**Etorri sanjoanek gurekin ospatzera!**  
**Pintxoak ogitartekoak eta giro euskalduna**  
Plaza berria, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 20 70

**'ZURE UMEEN DENDA'**  
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak zakuak • maindireak • ohe estalkiak  
BUGABOO • BEBECOMFORT • QUINNY • INGLESINA • BEBECAR • JANE • MAXI-COSI • CASUALPLAY • STOKKE  
San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

**masaia eta akupuntura**  
**Ainhoa Kolomo**  
Arostegieta 17 - 1  
20400 TOLOSA  
Telf 943 67 46 53

**AITZOL**  
UDAL EUSKALTEGIA

**SANJOANETAN SU ETA EUSKALTEGIAN ZU**

Gorosabel 34-B  
Tolosa  
Tel. 943 651006  
aitzolue@euskalnet.net



TOLOSALDEA ▶ SAN JOANAK

# Haurren gozamenerako ekitaldiak izan dira Abaltzisketan eta Belauntzan

San Joan jaien baitan Abaltzisketan haur jolasak izan ziren eta Belauntzan jolasez gain pailazoekin eta Eriz magoaren ikuskizunarekin gozatu zuten; gaurkoan ere ekitaldi ugari izango dira bi herrietan



Puxikak zapaltzen jolastu ziren gaztetxoak Abaltzisketan. O.ESKIXABEL



Pailazoak haurrekin aritu ziren jolasean Belauntzan. D. GIBELALDE

D.GIBELALDE/O.ESKIXABEL

Haurrak izan ziren protagonista atzo, eskualdeko herrietako jaietan; Belauntzan zein Abaltzisketan arratsaldean lagun artean eta jolasean pasatzeko aukera izan zuten gaztetxoek.

Abaltzisketan, esaterako, jolas desberdinetan aritzeko aukera izan zuten herriko txikienek; inguruko herrietatik ere inguratu ziren jolasera: aulki jokoan, Koskol bilketan, puxikak zapaltzen... eman zuten arratsaldea pilotalekuan. Helduak ere ondo pasa zuten begira. Gaua heltzerako herri afaria egin zuten Larrunari elkartean; 30 lagun inguru bildu ziren. Etxabe anaien trikiti doi-nuek alaitu zuten afalostea.

Gaur, II Mus Txapelketa egingo dute. Gauean, sagardo dastaketa izango da herriko plazan; afaria norberak eraman beharko du. Gauean, Triki ta Ke taldearekin dantzaldia egingo dute; atsedenealdian, eta indarra geratzen zaienez, txingara apustua antolatuko dute.

Belauntzan, haur jolasak egin zituzten pailazoekin batera, eta Eriz magoaren ikuskizunarekin gozatu ahal izan zuten gerturatu ziren gaztetxoek eta gurasoek. Eriz magoak txundituta utzi zituen haurrak: karte-kin trukoak, gauzak agertu eta desagertu...

Gaur mus eta puntu finalak jokatuko dira. Aipatzekoa da

arratsaldeko sega apustua: Izaskun, Rosi, Aitxol, Harri eta Joseba ariko dira. Harrijasotzailea Ostolaza izango da, eta aizkolariak Etxebeste eta Olsagasti.

Belauntzako jai alternatibo-

ak ere atzo hasi ziren; txupinazoa, herri afaria, txinga eta toka txapelketa izan ziren.

Gaur, hamaiketakoak, mus eta puntu txapelketaK, jolasak, frontenis, tortila txapelketa eta gazte jolasak izango dira.

## GAURKO EGITARUA ▶

### ABALTZISKETA

16:00. II. Mus Txapelketa.  
21:00. Sagardo dastaketa.  
23:30. Triki ta Ke taldea.  
Atsedenealdian. Txerrikume harrapaketa.

### BELAUNTZA (EGITARAU OFIZIALA)

13:00. Mus eta puntu finalak.  
18:00. Herri kirolak: aizkolariak, sega apustua, harrijasotzailea...  
Jarraian. Epelde eta Larrañaga trikitilariak.  
21:00. Kostila jatea barrikotearekin. Ondoren, Epelde eta Larrañaga goizaldera arte.

### BELAUNTZA (JAI ALTERNATIBOAK)

11:00. Hamaiketakoak eta mus eta puntu txapelketa.  
16:00. Haur jolasak.  
18:00. Frontenis txapelketa.  
20:00. Tortila txapelketa.  
21:00. Gazte jolasak.

### TOLOSA

09:30. XIII. San Joan Zesta-Punta Txapelketa Beotibarren.  
11:00. Erraldioiak eta buruhandiak.  
11:00. Txaranga del Oria kalez kale ibiliko da.  
11:00. Koadrilen arteko areto futbol kopa Berazubín.  
12:00. Koadrilen Egunaren hasiera Berazubín.  
12:00. Berazubín, tenisa. San Joan sariaren finalak.  
14:30. Plaza Berrian, koadrilen herri bazkaria.  
Larrañaga trikitilariak, Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza.  
17:30. Txirindulariak, Agustin Urkola proba.  
18:00. Sortzez Garbiaren plazan haur ikuskizuna, Detraka taldearen eskutik.  
19:00. Mulambo perkusio taldea kalez kale ibiliko da.  
19:00. Berdura plazan, Sagardo txapelketa: San Joan saria.  
24:00. Plaza Berrian O Jarbanzo Negro eta La Kinky Beat taldeen emanaldia.

**HITZA**, eskualdeko plaza  
661 678 818  
Toki aproposa iragartzeko

**Kanaroi Ahoakustika**  
Sanjoan zoriotsuak opa dizkizuegu  
Laskurain, 8 behe • TOLOSA  
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

**Colowall**  
• Pinturak, barnizak, erremintak...  
• Zoru eta paretan estaldura  
• Erakusgaiak  
• 100.000 kolore baino gehiago momentuan  
Plaza Zaharra, 2 • TOLOSA  
Tel./Faxa: 943 67 16 37 • mug.: 651 705 637

**www.tolosaldekohitza.info**  
▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira  
▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**Ametz Jatetxea**  
Eguneroko Menuak eta asteburuetan Karta eta Menu bereziak  
Larramendi, 1 - Tel.: 943 67 54 05  
20400 TOLOSA

**Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!**  
HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitetz harpidedun!  
**2** egun geratzen dira!  
**943 30 43 46**  
astegunetan (08:30etik 20:30era)  
larunbatetan (09:00etatik 13:00etara)  
**hitza**

## IBARRA ▶

**Asteartean  
Garagardo  
Festakoen bilera**

Garagardo Festako antolatzaleek bilera baterako deialdia egin dute datorren astearteko Sendi Ekintzen lokaletan. Bilera hori 19:30ean hasiko da. Maiatzean, herrian lehen aldiz egin zen Garagardo Festan lagundu duten guztiak gonbidatuta daude bilerara. Bertan, Garagardo Festaren balorazioa egin eta proposamen bat aztertuko dute.

## IBARRA ▶

**Gari Uranga  
Realean, bi  
urterako**

Atzo jakinarazi zuen ofizialki Realak Gari Uranga datozen bi denboraldietan Realeko lehen taldean ariko dela. Azken urtea Getafen utzita aritu da jokalaririk ibartarra, eta denboraldi bikaina egin du. Taldeak aukera izango du kontratua beste urtebetez luzatzeko. Atzo goizean sinatu zuen kontratua Gari Urangak, eta bere bizitzako «taldera» itzuli zela aipatu zuen.

## TOLOSA ▶

**Sexu askatasuna  
aldarrikatzeko  
kontzentrazioa**

Astelehenean, ekainaren 28an, sexu askatasunaren aldeko eguna dela eta, kontzentrazioa antolatu du Tolosako ezker abertzaleak aldarrikapen horrekin bat eginez. 20:00etan bilduko dira Trianguloan eta bertan ordu laurdeneko elkarretaratzea egingo dute. Herritarrek «aldarrikapen honen alde kontzentrazioan parte hartzea» gonbidatu dituzte.

## TOLOSA ▶

**EHNA egiteko  
aukera gaur  
goizean**

EHNA tramitzeko bi mahai jarriko ditu gaur goizean Tolosa Bizirik herri plataformak. Bata, Trianguloan jarriko dute eta, bestea, udaletxe arkupeetan. Bietan, «Koadrila Egunean parte hartuko duten hainbat kide» ere egongo direla azaldu dute plataformako kideek. EHNA egin nahi dutenek 11:00etatik 13:30era izango dute horretarako aukera.

## TOLOSA ▶

**San Pedro jaiak  
hasiko dira  
astelehenean**

Etzi, astelehena, hasiko dira Urkizko auzoko jaiak; egun horretan, 20:00etan suzuri eta kanpaiekin emango diete hasiera jaiak. Asteartean, San Pedro eguna dela eta, bazkaria egingo dute auzotarrek; eguna trikitilariak alaituko dute. Datorren larunbaterako eta iganderako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte: auzoko afaria, toka eta bolo txapelketa, haur jolasak...

## LEABURU ▶ SAN PEDRO JAIK



Nerea Herrarte ipuin kontalaria, atzo Leaburun emandako saioaren une batean. D. GIBELALDE

# Festan murgilduta dira herritarrak

Suziriak, Herrarteren ipuin kontaketa, Agirrerren koadro erakusketa, eta hitzaldia izan dira herriko jaiak hasteko

DANI GIBELALDE

Kultur ekitaldiekin hasi ziren atzo San Pedro jaiak Leaburun. Jaien hasiera iragartzeko suzuri ondoan, haurrek Nerea Herrarte ipuin kontalariaren saioarekin gozatu ahal izan zuten.

Ondoren, Maria Luisa Agirre herritarren eskutik, koadro erakusketa izan zen herriko Ostatuan. Agirrek, ordenagailua erabiliz eta marrazki programa baten bidez argazkiak bere modura moldatzen ditu, filtroen bidez, koloreekin nahastuz... montajeak eginez. Bere lanen artean «politikak hartuz» eta aukeraketa bat egi-

nez, 20tik gora artelan ipini zituen.

Agirrek paisaiak eta natura asko uztartzen ditu bere lanetan. Etxetik, ordenagailu bidez, «natura bizitzan» duela aipatu du Agirrek. Esaterako, oso gustuko du «eguraldi hodeitsua»-ren paisaia, misterio punttua ematen diolako. Emakume biltzueren irudia ere asko gustatzen zait.

Kasualitatez hasi zen ordenagailuarekin lanak egiten. Ez zituen ezagutzen ordenagailuaren baliabideak, baina ordenagailu bat erosi zuen, «zer-tarako balio zuen ikusteko. Hasi-eran ez zitzaidan gustatu, idazmakina bat bezalakoa iru-

ditu zitzaidalako. Ondoren, eskaner bat erostea proposatu zidaten eta horixe egin nuen. Argazkiak ordenagailura sartu eta programa baten bidez aldatu ahal izatea aldaketa handia izan zen». 85 urte beteko ditu Agirrek hurrengo hilabetean; afizio horrekin denbora asko eman arren, oso gustukoa duela nabarmendu du.

Bestalde, Juantxo Agirre Mauleonek, Aranzadi zientzi elkartereko partaideak hitzaldia eskaini zuen atzo Leaburuko baserrien historiari buruz.

Gaur Mus Txapelketa izango da arratsaldean; gauean herri afaria eta Nekin taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

## AMEZKETA ▶

## Hasi da Gazte Taldeak antolatutako txapelketa

Inoiz baino jende gehiagok eman du izena; guztira 22 bikotek hartuko dute parte

O. ESKITXABEL

Atzo jokatu ziren Amezketa Gazte Taldeak laugarren urte antolatutako pilota txapelketa herrikoiko lehenengo partidak; gaur, Ugaitzek eta Anderrek Eneko eta Beñaten aurka jokatu dute 18:30ean; helduek jokatu dute ondoren; Latuk eta Aletzek Azintzin anaien aurkako neurketa jokatu dute.

Antolatzaileak pozik agertu

dira aurtengo txapelketako partaidetzarekin. Estrainekoz emakumezkoak animatu dira, gainera. Hamahiru urte azpikoetan emakumez osaturiko bikote batek eman du izena; helduetan, berriz, bi. Hauek, beraien artean finala jokatu dute abuztuaren 27an.

Txapelketa herrikoiko partidak uztailean zeharreko ostialetan eta larunbatetan jokatu dira plazako frontoi zaharretan.

## BALIARRAIN ▶

## Jose Antonio Jauregi aurkitzeko autobusak

Desagertutako baliarraindarrak aurkitzeko autobusak irtengo dira gaur eta bihar

O. ESKITXABEL

Oraindik ez dute aurkitu Jose Antonio Jauregi Oiarbide baliarraindarraren arrastorik. Profesionalekin batera, bere bila dabilta hainbat herritar ere.

Asteazkenean, Bidarraiko (Nafarroa Behera) Bentan aurkitu zuten Beran irakasle lanetan aritzen den Jauregiren autoa. Orain, Gorramendi mendian (Amaiurtik gora, Orxondo portuaren ondoan) ari dira baliarraindarraren bila.

Herritarrek Jauregi bilatzen

laguntzeko deia luzatu dute: «Mendizaleak behar ditugu zonalde hau arakatzeko laguntzeko», diote. Hori dela eta, autobusak antolatu dituzte gaurko eta biharko. Bi egunetan 07:00etan abiatuko dira autobusak Baliarraindik Nafarroa Behera aldera. Jendearren laguntza «ezinbestekoa» dela zehaztu dute herritarrek profesionalak igandera arte ari tuko baitira lanean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, honako telefono zenbakira deitu daiteke: 639 96 71 30 (Leire Zubeldia).

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Gorritarango eguna egingen da bihar Kaxetako gainean

Ekaineko azken igandea izaki, San Pedro eguna aitzaki hartuta, egun beteko festa antolatu dute auzotarrek



Gorritarango egunean jendez eta festaz beteko dira errepideak ez ezik txokoak ere. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar igandea, San Pedro eguna ospatzeko, Gorritarango eguna antolatu dute auzotarrek, egun bete prestatu ere. Eta festa egun hau gorritarandarrontzat berezia izanagatik, «festarako gogoia duen guztia gonbidatuta dago» HITZARI esan diotenez.

Bertara joan denak, ez du aspertzeko betarik izanen zailantzarik gabe, izan ere goiz-

goizetik hasi eta gaueko ordu ttikiak arte, zer ikusia eta zertan parte hartua izanen du.

Festa hau Gorritarango auzoko biztanleek beraiek antolatzen dute, «edo han jaiok edo hangoekin erlazio zuzena dutenek» argitu nahi izan dutenez. «Eguna hurbiltzen ari dela ikusi eta hiru bat bileretan, lanak banatzen ditugu, gutxi gora behera badakigu bakoitzak zer egin behar duen eta aurrera». Eta horrela, batzuk

han bertan dagoen kapila txukundu eta elizkizunak moldatu, besteak kirolariak lotu, besteak musika kontuak, jokoak prestatu, zozketa bideratu, txapelketak, sariak lortu... Guztien artean askotariko ekitaldiak antolatu dituzte iganderako.

Ekitaldiak antolatuz gain, ordainketak egiteko ere «gazteek kuota ordaintzen dute urtean eta mus txapelketako izenematek ere ateratzen da eta gero zozketa egiten da. Bestal-

## EGITARAUA ▶

Bihar.

## GORRIZTARANGO EGUNA

10:00. Meza.  
11:00. Haurrentzat jokoak.  
12:00. Herri kirolak.  
14:00. Bazkaria.  
17:00. XX. Mus Txapelketa.  
19:00. Dantzaldia gauerdirarte.  
20:00. XXI. Txintxurrin Txapelketa.  
20:30. Zozketa.  
Ondoren. Txokolatea.  
Egun guztian zehar. Trikitilariak.

de Udalak ere zerbait ematen du», argitu dute. Honen harira, zozketako sariak, horrek irauten duen bitartean jaso behar direla gehitu dute.

Bada ekitaldi bat ordea aipamen berezia mereziko lukeena eta Gorritarango auzoko ezauzgarri dela esan daitekeena, bat izatekotan: txintxurrina.

## Txintxurrina

Aurten XX. Txintxurrin Txapelketa burutuko da. Nahi duen guztiak parte hartu dezake, baina edozein dela ere, indarra ez ezik, biguntasuna eta trebezi dezentea behar ditu: hanka puntetan, beso bakarraren gainean, lurrean etzanda, luze-luze egin eta han aurrean dagoen txanpona, ahalik eta urrutien arrastatu eta, gero zutzeko eginahala, ez da nolana hikoia izaten. Eta horretan, bestetan beste, iaioak eta trebeak dira horko gazteak. Kontuak kontu, ikustera joatea bezalakorik ez da izanen.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212  
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39  
Asteasu. Medikua: 69 24 23  
Berastegi-Elduain. 68 33 61  
Bidegoian. Medikua: 68 11 34  
Ibarralde. Osasun etx.: 672411  
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29  
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20  
Leitza. Osasun z.: 948 510800  
Lizartza. Medikua: 68 20 77  
Tolosa.  
▶ Anbulatorioa, larriald:461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
Villabona-Aitzondo.  
Anbulatorioa: 00 69 70  
Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxis: 67 04 20  
▶ Taxis (Leitza): 680 873016

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Azpiroz, Amaroz, 9, (Tolosa). 943 67 51 18.  
Gimeno A., Elbarren, 52, (Leitza). 112.

## TOLOSALDEKO HITZA

Publizitate. 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publi@tolosaldeko hitza.info  
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.  
villabona\_aitzondo@tolosaldeko hitza.info  
Anoetaledea. 687 41 00 22  
anoetaledea@tolosaldeko hitza.info  
Ibarralde. 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko hitza.info  
Alegialdea. 687 41 00 34.  
alegaldea@tolosaldeko hitza.info  
Leitzalde. 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

LEITZA ▶ KULTURA

## Patziku Perurenaren lan berri bat argitaratu da, iaz jasotako sariagatik

Euskaltzaindia eta BBK sariketan, 2003ko Mikel Zarate saiakera saria irabazi zuen

J. ASTIBIA

Harrizko pareta erdiurratuak izenburuko liburu argitaratu berria da, Patziku Perurenak plazaratu duen azken lana.

Iaz, Euskaltzaindia eta BBK antolatzen duten, eleberri, antzerki, olerki eta saikera sariek aurkeztu zuen lan hau, Mateo Leonet ordezkio izenez si-

natuta eta saiakera saria irabazi zuen. Orain beste saridunen lanekin batera, kanpoan da liburuska hau.

Lan honetan, euskaraz egina dagoena noski, hainbat hitz, esanera eta gertakizunen inguruan egin dituen ikerketa, azterketa eta «burutazioen» berri ematen du, beti ere aztergai izan dituen gai horien izku-



Patziku Perurena. J. ASTIBIA

tuko esanahiari, alegia, alde metaforikoari helduz. Lan honetan ere, idazleak berak hainbat aldiz hain beharrezkotzat jo izan duen eta miretsi duen «ahoz-belarriko iturriak» leku garrantzitsua du.

PLATER TIRAKETA ▶

## Iganderako plater tiraketa iragarrita dago Baztarlan

J. ASTIBIA

Bihar igandea, arratsalde, 17:00etan hain zuen, plater tiraketa izanen da Baztarlako gainean. Ekitaldi hau, Leitza-ko ehiztari elkarteak antolatu du eta bere bazkideei dei egin die bertan parte har dezaten. Edozein moduz, nahi duenak izena han bertan ematea nahikoa omen du, hori bai, tiraldiekin hasi baino lehen. Gainerakoaz, antolakuntza arduratuko da.

## iragarki laburrak ▶

## LAN ESKAINTZA

Etxeko lanak. Emakume bat behar da Alegian, etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 10:30etik 14.30era. Telefono zenbakia: 943 65 30 34. (Arratsaldean deitu).

Haurtzain. Neska euskaldun batek (20 urte, unibertsitateko ikaslea) haurrak zainduko lituzke uztaian eta abuztuan. Telefona: 943 67 44 76.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Amezketan.** Betizu jatea Ugarten, 14:00etan.  
**Leitza.** Bai Euskal Herriari, ikurrina gurea lelopean, euskal ikurren aldeko manifestazioa. 19:00etan, herriko plazatik. Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatuta.  
**Tolosa.** Fofito Aragonen zirkola San Esteban auzoan. 20:00etan. Bihar 12:00etan eta 20:00etan.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Kultur Etxeko tailerretako ikasleen lanak Aranburu Jauregian.

**ZINEMA**

**Tolosa.** La joven de la perla. 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

**«Guztion bihotzean» hiriburu**

**TOLOSA ▶** Batzar Nagusien aparteko batzarra egin zen atzo; Leire Ereño lehendakariak hala definitu zuen Tolosa; Iñaki Linzasoro izan zuten gogoan



Ekitaldiaren hasieran, dantzariak Agurra eskaini zien agintariei Gorosabel zaharrean. JOXEMI SAIZAR

**JOXEMI SAIZAR**

**G**ipuzkoako Batzar Nagusiak berreskuratu izanaren 25. urteurrenean, Batzar Nagusiek aparteko batzarra egin zuten atzo Tolosan, Gorosabel Zaharrean.

Ekitaldian, batzarkideez gain, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahalduen nagusia, Tolosaldeko alkatea, Tolosako alkatea eta zinegotziak eta eskualdeko kultur eta gizarte pertsonai ugari izan ziren. Atarian Zentro Gerontologikoko langileek Diputazioak egoitzako zerbitzua bere kontu merke-tu nahi duela salatu zuten.

Ekitaldiaren sarreran, Jokin Bildarratz alkateak Tolosak historian zehar Gipuzkoako Batzar Nagusiekin izan duen harreman estua aipatu zuen. 1844tik 1854ra Tolosa Gipuzkoako hiriburu izan zela eta ondorengo hogeitun urteetan, hiriburu Donostia izan arren, Batzar Nagusien eta Ahalduen Nagusiaren egoitza Tolosan jarraitu zuela gogoratu zuen. Azkenik, herriaren sorreraren 750. urteurrenean, 2006an, «aktiboki parte hartzea» gonbidatu zituen entzule guztiak.

Leire Ereño Batzar Nagusietako lehendakariak «guztion bihotzean» Tolosa Gipuzkoako hiriburu dela esan zuen eta Iñaki Linzasoro hil berria izan zuten gogoan.

Batzar Nagusiek hiru gai jorratu zituzten: Aforgatik pasatzen den N-1 kale bihurtzea, Pasaialdeko protokoloa erretiratzeko proposamena eta Iñaki Uriaren askatasuna eskatzeko aurkeztutakoa.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

**Harkaitz Amundarain Tardío (Amezketan).**

Gaur urtebete. Zorionak familia guztziaren partetik eta, batez ere, zure anai lbaireren partetik. Txalo, txalo, txalo.



**URTE ASKOAN**

**Izadi Otamendi (Tolosa).**  
 Gaur urtebete. Zorionak zure ahizpa Maialen eta gurusoen partetik.




**URTE ASKOAN**

**Onditz Aiestaran (Berrobi).**  
 Dagoeneko 18 urte! Zahartzen ari haiz, e! Koadrilaren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Ibai Torkemada (Berrobi).**  
 Gaur urtebete. Bere lehengusuak Miriam, Igone eta Ane.



**ZORIONAK**

**Amaita eta Markos (Tolosa).**

Ondo pasa zuen ezkontza egunean.

**HITZA,**  
 zorion agurren  
 tartea  
 Mesedez,  
 ekarri argazkia bi egun  
 lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara  
 (Araba etorbidea, 5  
 beheko - Tolosa)

**ZURTE**  
 www.zurte.es

HAR, EGAR, BIKI, DANDA, 400113  
 SENA, KIARRO, 400113  
 ZITE iluzinagarria

**Diesel hilabetea Citroën-en** Liderra HDI diesel teknologian, eta eskaintza onenak

**CITROËN C15** 2.400€  
 C 15 1.9D Furgoa 8.875 €\*

**CITROËN BERLINGO** 3.500€  
 Berlingo 1.9D Cauda a CD Pack arretan 11.950 €\*

**3.000€ CITROËN JUMPY BERRIN**  
 Jumpy 1.9D Confort Furgoa 13.790 €\*

**4.000€ CITROËN JUMPER**  
 Jumper HDI 85 29C 15.990 €\*

www.citroen.es

**IRROI, S.A. CITROËN Kontzesionario Ofiziala** • Industrialdea, z/g. • Tel.: 943 65 18 42 • Anoeta-Tolosa